

## LIBERALAK

Arrazoi etimologikoengatik seguru asko, konnotazio positiboak izan ditu niretzat «liberal» hitzak entzun nuen lehen unetik. Izen horrekin zaila egin zitzaidan ulertzea nola izan zitezkeen liberalak, eta ez karlistak, nazio ikuspegitik etsai; langile klasearenetik libertarioak etsai izan zitezkeela bezain zaila. Liberalak (eta libertarioak) askatasunaren txapeldun, botere guztien zapalkuntza jasateko prest dauden iraultzaileekin lotzeko joera nuen, gauza batzuk ikasi nituen arte. Bat, ez dela gauza bera liberala ekonomian, liberala politikan eta liberala ohitura eta moralean. Bi, nekez aurki daitekeela hiru maila horietan guztietan liberala den inor. Hiru, ideologia liberalak (eta libertarioak), askatasuna beste edozein balioren gainetik jarrita, injustizia dakarrela ondorio logiko (beraz saihestezin) nabarmen modura.

Gaur egun eragin handiena duten liberalak enpresariak dira. Enpresarien moralak, apustu egingo nuke, ez da liberala, oso kontserbadorea, hau da, bikoitza, baizik. Kalera begira familia, meza eta ohitura onak defenditzen dituzte. Moral pribatua bestelakoa dute, seguru. Politikoki liberalak, hots, eskuinekoak direla ez dago dudarik. Ekonomian, berriz, liberaltasuna defenditu berri dute publikoki. Ez dute botere publikoen interferentziarik nahi ekonomian, Adam Smithen *esku ikustezinari* lanean pakean uztea komeni baita. Ez diegu entzun, hala ere, azken urteotan Jaurlaritzak industri planen bidez eman dizkien mila milioikako laguntza kontrolgabe bez kexu.

IU-EB eta Intxaurren EAEko Jaurlaritzan ez sartzeko gomendioa egiteari naturala irizten diote, sobrare, enpresariak. Hor ez dago, antza, interferentzia onartezinik. Nik dakidala, herritarrok ez dugu enpresarien ordezkariarik hauteskundeetan demokratikoki hautatu zeregin horietarako. Alegia, ez daude zeregin politikoetarako, ez baitira hauteskundeetara aurkeztu. Oraingoan eskua ez da ikustezina izan. Guztiok ikusi ditugu liberalok ez dagokien tokian eskua sartzen. Batere lotsarik gabe.